

# Kantua gure liturgian

## *Historio puxka bat*

Orai ezagutzen dugun liturgia berri hunek erroak urrun eta barna dauzka. Lehen parte batean, hegaldaka labur bat eginen dugu ikusteko kantua zer leku ukan duen gure elizetan aintzinagoko mendeetan, kontzilioa hasi arte, eta geroztik zeri buruz doan.

Bigarren parte batean, aipatuko ditugu gure koralek egiten duten lana Euskal Herriko elizetan. Aipamen bat merezi dute zeren, helduden urtean, 2009an. berrogoi urte eginen du hasiak direla lan ixil hortan. Gaia izanen da bakarrik Ipar aldeko elizetan egiten den lanaz.

### I

Noiz danik kantatzen ote da gure Euskal Herriko elizetan ? Xuxen ez dakigu, bixtan dena. Ditugun dokumento zaharrenak hamazazpi garren mendekoak dira. Hor ditugu lekuko bi liburuxka ontsa ezagutuak.

Bat, *Joannes Etcheberri*, Ziburuko apezak argitaratu zuena, 1630 eko baimenarekin :

#### **Noelac eta berçe canta espirtual berriac**

« Canta berriac » erakusten dauku, bazela lehenago bertze liburuxka bat edo berdin gehiago agertuak kantu zaharragoko batzuekin. Bainan ez dugu herrestorik. Liburuxka hortan atzemaiten ditugu, oraino gure elizetan kantatzen ditugun kantu batzu : « *çato Izpiritua... Canta arin mundutarrak... Ah, guiçona biçi haiz ixutua...* »

Bigarren liburuxka bat agertu zen Pau-en, geroxago 1686n, *Gazteluçar*, jesuista batek egina. **Eguia catholicac salvamendu eternalaren eguiteco necessario direnac** Hemen ere badira bi kantika ordutik kantatzen direnak gure elizetan : « *Canta çagun guçiec ahalic gorena ... Creatura damnatua* ». Beldurrik gabe erran ditake, liburu horiek agertu aintzin, eta hori aspaldian, kantatzen zela euskuaraz gure elizetan ! Dechepare-k, bertsutan egin « *Doctrina Christiana* », norentzat egin ote zien ez bazen herriak kantatzeko egina, berdin orai oraino Xuberon emaiten den pastoral baten modan ! Hala nola « *hamar manamenduiak* »:

« **Ador ezak Jangoiko bat, onets oroz gainetik ;**

**Haren izena ez jura kausa gabe banoki;**

**Igandiak eta bestak santifika debotki;**

**Aita eta ama ohora hitzak, bizi izan luzeki ... »**

**17. 18. 19.** mendetan arras kantu guti izan da eginik Euskal haritik. Frantses kantua sartu dira trumilka gure elizetan. Nolaz ez ! Zer entzuten zuten orduko apez gaiek beren seminario eta komentuetan : Gregorianoa eta frantses kantikak ! Etzen besterik. Aintzinagoko apezek, frantsetik egin kantikak kantatzen zituzten lorian. Aita Lerchundik egin « **Kantikak** » liburuan erraiten du ahoan bilorik gabe : « *Erran dezaket, egiaz, gure elizetako kantuetan, hiruetarik biga, frantses kantuetarik hartuak izanak direla* ».

Beharrik, 19. mendearen undarrerat xutituko dira gizonak Euskal kantiken berritzeko.

*Gratien Adema*, « *Zalduby* », “ *Oi gurutzea, oi Gurutzea...* ” kantu famatuaren egilea.

*Jean Barbier* hoinbeste kantika berritu baititu.

*Charles Bordes*-ek 1899an, argitaratzen du : « *La tradition au Pays Basque* » liburu famatua. « *La musique populaire basque* », « *Dix cantiques populaires basques* », « *Douze Noël basques* ».

1892ean **Aita Jaret** misionestak argitaratzen du « *Hazparneko Galbarioa* », 74 kantiken bilduma batekin.

1906an **S. Hiriart**, Larresoro-Belokeko organo joileak, argitaratzen du « *Eskualdun Eliza-kantuak* », 200 bat kantika organoa lagun, balio handiko liburua, Euskal-Herriko organo joilek ontsa baliatu dutena .

1936an **Florentin Vogel**, Donapaleuko organistak argitaratzen du « *50 Eskualdun kantika* ».

Hego aldean behar dira aipatu bi musikari famatu :

**D. Resurreccion M. de Azkue**. 1912 an argitaratu zuen « *Canciones religiosas* » 89 kantiken bilduma.

**Aita Jose Antonio de Donostia**, kaputxinoak argitaratzen ditu, « *Euskual Eres sorta* », 66 kantikekin (1916) eta « *La musica popular vasca* » (Bilbao 1917).

Bi azken hok egin dituzte beste ainitz lan musikari buruz, luzegi bailitake hemen aipatzea.

20. mende erditsutan, gerla finitu ta laster, piztu zen Euskal-Herrian, bertze ainitz lekutan bezala, mogimendu bat beti emendatuz joanen dena : mundu zahar bat erortzera zoan, berri bat ari zen sortzen azpitik.

**1947an**, gerla finitu bezain laster, **Aita Gabriel Lerchundik** argitaratzen du, zombait urte hetan ontzen ari zuen lan bat : « **Kantikak** » deitu liburua. Ainitz urtez, bizikletez kurritu zituen Euskal-Herriko ainitz parrochia, orduan kantatzen ziren kantiken bilduma baten egiteko. Behin ere egina etzen lan bat, hoin xeheki ikertua eta balio handikoa. Handik laster, Belokeko gazte andana bat hasi zen, Iratzeder buru, liturgiari buruzko lan batzuetan. Sendi zen zerbait berriri buruz ari ginela.

**1947ko Otsailaren 3an**, lehen aldikotz, bezperak Euskaraz kantatuak dira Mugerren.

2001ko Otsailaren 3an, bezpera horiek berak kantatuak izan dira Mugerreko elizan, *Euskal Kultur Erakundeari esker*.

**1952 an Pio XII Aita Sainduak**, Aste Sainduko Elizkizun guziak berritzen ditu : Jesu-Kristoren **hiltzea eta piztea**, liturgiaren **zentroan** emanez : **Denak hartarik doatzi, denak hartarat doatza**. Liturgiari buruz hasi sailean, lehen liburua orduan agertu zen : **Gau Saindua**, Beloken. Orduan piztu su-garra handituz joanen da kontzilioa hasi arte .

**1953 an** Belokeko gaztek kantatzen eta argitaratzen dute lehen meza bat eskuaraz : **Jainko Jaun zerukoa**, dizka bat lagun. 10 urte kontzilioa hasi aintzin, gure elizetan kantatzen ziren Euskaraz : Urrikal, Aintza, Sinesten dut, Saindu, Gure Aita, Jainkoaren Bildotsa, nahitez orduko itzulpenetan.

**1954an** agertzen da « **Pasionea** » *Lerchundi-Iratzeder-en lana*. Ainitz herritan emana izan da Pasione hori, zombait urtez.

Urte berean « **Mortutik oihu** » Jondoni Batistaren bizia. *Lerchundi, Iratzeder, Ch. Lebout*.

**1956ean : Eguberri: Aita Donostia-Iratzeder**.

**1961 an** « **Elizako Liburua** » agertzen da, Narbaitz kalonjeak argitaratua, igande guzietako irakurgaiekin. Berant bazen ere, laguntza handia ekarri du ainitz girixtinoeri, kontzilioko lanak agertu artian.

**1963 an** agertzen da **Aipa Jainkoa Aita Lerchundi eta Aita Iratzeder-ek** egina : Salmo andana bat, bi, hiru bozetan, Belokeko frailek kantatuak. Ainitz aldiz agertuko da dizka hori ondoko urtetan.

## 1962ko Urriaren 11an idekitzen da Kontzilioa

Mundu guzia gertakari horren beha zagon zombait urte hetan. Ainitzek senditzen zuten mundu zahar bat lurrerat zola eta berri bat ari zela sortzen petik. Elizak ere bazuen gaztetzearen beharra, maizegi gakotua baitzagon bere ohidura zaharretan. Orduan gertatu dira jakitate handiko langileak, Elizak behin ere ikusi etzuen berritze bati lotzeko. Alainan, liturgia guzia behar zen berritu, haste irakurgaietarik (lehen baino hiruetan gehiago), kantuen hitz eta doinu berriak asmatu, Sakramendu guzien irakurgaiak berritu, eta holako lanen hedatzeko **EZKILA** sortu berria zen argitaratzailea bultatu. Bainan, zioten zombaitzuk, behar ote zen holako lan izigarri bateri lotu, ala aiseteneat lerratu, frantses kantu eta testoak hartuz ? Etziren hartarik ari Euskal-Herriko apez eta euskaltzaleak !!

1964ko Martxoaren zazpian, elgarretaritzen da apez andana bat gaitza Jaun Apezpikuaren inguruan : oldar gaitzean gehienek hartzen dute xedea, Euskal Liturgia sorarazteko,zernahi gostarik ere. Zuhurtziazko xedea !

Hain xuxen, urte berean argitaratzen da **Aita Lerchundi eta aita Iratzeder-ek** egin lan handia : **Salmoak**. Ez ditaik aski estima liburu horrek ekarri duen laguntza Kontzilioko lanak hastera zoatzin memento hartan. Lehenagoko liturgian etzen salmorik kantatzen, latinez baizik, erran nahi baita Euskal herrian batez, salbu bezperetan. Salmoek, liturgi berrian, leku handia ukanen dute.

Denak lekuan ziren liturgi berriari lotzeko. Erromak, testo berriak agertu arau, talde bat itzulpenetan hasten zen eta segidan musikalariaik aire berri egiten edo zahar berritzen.

Lehen langilen izenak aipatu gabe ez ditazke utz :

**Testoen itzulpenetan** : Pierre Andiazabal Liturgia Batzordearen buru han ziren, Pierre Lafitte, Aita Iratzeder, Joseph Oçomendy, Marcel Etchehandy, Pierre Etchebarne, Mañex Erdozaintzi, Guillaume Epherre kalonjea, Jean Idiart-Urruty, Emile Larre, Marcel Larralde, Georges Bidart, Sarako apeza, Pierre Etchebarne, Itsasuko apeza, Benoît Olhagaray, Pierre Charriton eta beste.

**Kantuen mailean**: Gabriel Lerchundi, Pierre Narbaitz kalonjea, Jean Donetch, François Lopepe, beneitana, Pierre Lagrenade, Martin Arrabit apeza, Juan Urteaga, Thomas Garbizu, Juan Jose Olaizola.

Huna **1964 an**, EZKILAN argitaratu ziren lehen lanak :

- Urtarrilaren 2an, Lerchundu-ren **Meza-Nagusia**.
- Otsailaren 5en Garbizu-ren **Herriko Meza**
- Otsailaren 19n Narbaitz-en **Meza-Laburra**.
- Maiatzaren 7an Urteagaren **Igandeko Meza**.
- Uztailaren 28an J. Olaizolaren **Euskal Meza**.

Bi talde horiek, 12 urtez, egin dute lan bat ezin sinetsizkoa : Liturgi guzia berritu daukute.

Aipatuko ditugu bakarrik, etsenplu gisa, egin dituzten itzulpenak irakurgaietan :

- *Astelegunetako irakurgaiak* 586 orri
- *Igandetako irakurgaiak : A B C urteak* 421 orri
- *Bestetako irakurgaiak* 118 orri
- *Abendoa – Eguberriko denbora* 72 orri
- *Garizuma* 160 orri
- *Bazko denbora* 105 orri

Ainitz kantu osoki berrituak izan dira, bai doinuaren aldetik, bai eta ere gehiago hitzen aldetik, Bibliaren mamiaz baitziren eberastuak.

Sail hau bururatzean nahi nuke aipatu, hego aldeko eta ipar aldeko taldek egin duten lan baliosa, **Euskara berean emanez mezako kantu guziak**. Zinez hori izan da **Euskara batuari buruz egin lehen urratsa**, indar bat ekarri baitu gure elizkizuneri : **Hitz berak, sineste berean**.

## II Koralen sortzea

**1966an**, J. Urteaga buru, hiru koral elgarretaratzen dira Donibane Lohizuneko Elizan: *Begiraleak, Oldarra eta Belokeko fraile andana bat, J. Urteaga-k* egin Meza berri baten argitaratzeko xedearekin. Meza horrek fama handia ukanen du, ezen oraino kantatua da urte guziz, Donibaneko Elizan, hau da : **La messe des Corsaires**.

Orduan zen sortu ainitzen gogoan: zertako ez ditugu muntatuko gure herrietan koralak gure elizkizunen hobetzeko .Asmo horrek egin zuen laster bide Euskal Herriko elizetan .

**1968an** apez eta laiko andana bat elgarretaratzen dira gai hortaz mintzatzeko. Zonbait puntu jalitzen dira: Koral batek laguntza handia ekar lezake gure elizkizunetan :

- Kantu berrien ikasten lagunduko du herria,
- Besta burutan ,kantu bat edo bestek bi, hiru bozetan ,zerbait berri ekar lezake,
- Harreman bereziak sortuko dira herrien artean,
- Kantu berak hedatuz ainitz herriren artean .

**1969ko Urtarrilaren 23an**, Uztaritzeko Seminarioan, sortzen da Koralen batasun bat :

Commission des Chorales du Pays Basque **C.C.P.B.**

Euskal Herriko Koralen Abesbatza **E.H.K.A.**

**1969ko otsailaren 6an**, lehen bilkura egin zuten Beloken. Pierre Narbaitz kalonjea eta Pierre Andiazabal buru, huna lehen arduradunen izenak : Joseph Camino, Arrabit, Jean Donetch, aita Lopepe Belokekoa, Pierre Lagrenade eta Paul Sarcou. Hauen lana :

- Elizako kantuen bilduma bat egin, bi, hiru eta lau bozetan,
- Hautaketak egin urte oroz koralentzat, xehetasun guziekin,
- Musikalariak sustatu, kantu berrien egitera,
- Koraler furnitu egitarau edo programa osoa urte oroz.

Koralen lehen biltzarrea **1969ko Azaroaren 23an** egina izan zen : han ziren 600 bat kantari Euskal Herriko herri gehienetarik etorriak. J. Camino meza emaile, Andiazabal apezka eta F. Lopépé beneditanoa laguntzaile. Narbaitz kalonjeak eman zuen predikia edo homelia, eta Sarramagan kantu guzien gidari. Sekula ikusi etzen egun ederrenetarik bat Hazparneko elizan.

Ordutik gure laneko ara beti bertsia izana da. Haste hastetik, izen bera emaiten diogu koraleri emaiten diotegun liburuxkari :

**Kanta Jaunari 1969 Hazparne ... Kanta Jaunari 2009 Donapaleu.**

Gure batzordeak hamar, dotzena bat lankide baditu, Euskal Herri guzitik. (orai, 2009an, 5 apez eta zortzi laiko).

- Lehenik hautatzen dugu zoin igandetan eta zoin elizetan behar dugun **Kanta Jaunari** hori egin. Haste hetan, anitz kantari zelakotz, bi herritan egiten ginuen elgarretaratze hori: Bat Lapurdin, bestea Baxenabarren, edo Xuberon egitarau berarekin.
- Hautatzen ere, nor izanen den kantuen gidari, ahalaz lekuko bat gai balinbada.
- Nor organo joile. Nor meza emaile.
- Zer gai behar luketen kantuek, hautatu igandeko irakurgaien arabera.
- Batek edo biek egiten dute lehenik hautaketa bat, musikariak edo pertsulariak ikusiz, hitzak eta doinuak behar badira hunki edo hobetu. Lan hunek hartzen du hiru edo lau ilabete, gutienetik.
- Denak berriz elgarretaratzen gira, azken hautuketen egiteko. Bi ilabete oraino azken hunkien egiteko eta argitaratzeko.

- Zazpi zortzi kantari elgarrataratzen gira eta kantuak bederazka eta bozez boz kantatzen ditugu, kantariet helarazteko kantu ale bakotxarekin. Anitz estimatua den lana da : nor berak K7a har dezake etxerat, bere ber ikasteko.
- Azken eginbide bat badugu oraino 10 urte hotan egiten duguna : liturgiaren arduratzen diren laiko andana bat elgarretaratzen dira bezperan, biharamuneko liturgia ontsa prestatzeko. Urtetik urtera nola ez dira trebatzen ari !
- Zonbait urte hotan, egunaren ontsa finitzeko, elgarrekin bazkaltzen dira kantari guztiak : ez baita memento txarrena !

**2009an** berrogoi urte egingen du gure koralen batzordea sortua dela. Berrogoi urte gure kantariak lotzen direla kantu berri eta zaharrei. Berrogoi urte eskaintzen dutela lan hori Elizari eta Jainkoari, beren lanen artean, gogotik ezarriz beren dohaina denon zerbitzuko. Ez dakigu beti zonbat gostatzen den emaitza hori, bereziki neguan, lanak finituta, lasterka kantatzera ! Eskerrak seurki deneri ! Zonbait eta zonbait kantu ikasi eta kantatu dituzte ! Ainitz kantu berri edo zaharberriak sartu dira gure elizetan, koraleri esker. Gure kantika xaherrenetarik gehienak berriak izan dira. Badira oraino baliatuko ditudunak, ondoko urtetan.

Azken pundu bat nahi nuke aipatu : kantu frantses edo arrotz kotsia sartu dira gure egitarauetan ... sobera, zonbaiten arabera. Bi hitzez erraiteko ene ikusteko moldea, aire eder bat atzemaiten dutalarik, izanik ere arrotza, aberasten daut ene nortasuna, bertzetan ere sortzen baita edertasunaren iturria. Etsenplu bat hartzen dut : gure liturgian ere, juaingo eta ikerketak baliosago ateratzen dira. Orain hobeki ikusten dugu, mezan, Esker-Onceko otoitzean, hel-buru gorena dela : **Hunen bitartez, Hunekin eta Hunetan, Gure Aita** kantatu aintzin. Berthier-k egin du bat zinez ederra, hartu duguna gure liturgian, Besta-Burutan kantatzeko. Izena ezarri ez baginu, nor erran lezake « frantses » aire bat dela ? Hasteko, herri oso batek kantatzen duelarik, bi edo hiru aldiz entzun dutan bezala, ez da deus ederragorik. Gure elizetako kantuen arduraduner, keinu bat. Nahi nuke erran hemen, nola eta zertako sar-arazi ditugun aire arrotzak gure elizkizunetan.

1- Duela hogoi bat urte, Lurdeko beilan gertatzen ginelarik, bi urtetarik, Biarnes eta Euskaldunak elgarrekin, anitz kantari ez ginen juntatzen ahal, gu Euskaldunak, ez gintuelakotz ezagutzen. Hara nola hasi ginen, Lurdeko kantu zonbaitzueri itzulpenen egiten : **Gloria**, pertsuak euskaraz, **Saindu... Bat gaude... Zurekin goazi Jauna...Ogi guretzat emana... Bai, gora Jaungoikoa...** osoki sartu direnak gure elizetan.

2- Liturgia berria bultatu ginielarik duela berrogoi bat urte, bazen langilez ihaurri : galdatzea aski zen, ukaiteko segidan testo edo doinu berri. Orain besterik da ! nun dira *Lerchundi eta Iratzeder, Urteaga eta Donetch eta beste* ? Nun da, *E.Larre* gure azken pertsu egilea ordainduko duena ? Gure euskal alorra ez dugu, behar bada, aski miazten.

3- Gabezian, itzulpenetarat itzuli gira. Bixtakoia da, hitz eta doinuek euskal haritik behar luketela : ahal zenean, beti hala egin dugu. Nik uste halere hitzek, aireak baino pizu gehiago baduten. Bertsulari saio batean gertatzen zirelarik, zeren ondotik doatzi entzuleak ? Zer segitzen dute denek hoin erne eta bizi ? Bixtakoia : pertsularien hitzen eta ideien bidea, heien zuhurtzizko hitzak, edo berdin zirto eta gezien puntta xorrotxa ! Aireaz ez dira hala kexu ! Berdin, uste dut, elizako kantuetan : hitzek daukute mamia agertzen, sinestea azkartzen, fedea argitzen. Doinua euskalduna bada, seurki hobe : kantua hobeki jantzia da !

4-Ohartu ahal zirezte, zonbait urte hotan, bizpahiru kantu ezartzen ditugula programaz kanpo. Euskal Herri barnean guti kantatuak dira, puxka bat zailak direlakotz. Ardura frantsesetik edo beste arrotz herrietarik ateraiak dira. Horiek emaitzen ditugu bakarrik hiru edo lau koral aski handientzat, enplegia dutelakotz.

Hurrankako xendra hartzen duenak ainitz leku eder huts egiten du. Zer daki mendi kasko ederrez, hango ur-sorgiezt, hango ardi saldoez, sorhopila berde batzuetan alha edo haize bidean goxoki etzanak ? Berdin egin behar dugu, nahi badugu gure kantuetaz bista orokor bat ukan.

Goazen beraz bide handiz ! 1989tik 2009rat, beraz hogoi urtez emanak izan diren kantuen zerrenda egin dut. Bana beste, urte bakotx 14 edo 15 kantu eman ditugu. Euskaldun eta frantses-arrotzen kantuen mailean ere ekartzen dauku bere erakaspena .

Kantu euskaldunak.....251 kantu, orotara

Kantu frantses edo arrotzak.....28 kantu, orotara

Egia erran, azken hiru urte hotan 5,6,4 kantu frantses eman ditugu egitarau bakotxean. Horrek itsutu ote dituen bat edo beste !!

Bururatzeko, huna nun elgarretaratu diren Euskal herriko koralak berrogoi urte hotan :

1969 Hazparne	1989 Sara
1970 Ezpeleta	1990 Donapaleu
1971 Ziburu-Donibane Lohizune	1991 Hendaia
1972 Ortzaize	1992 Maule
1973 Itsasu	1993 Donibane Lohizune
1974 Lekorne	1994 Donibane Garazi
1975 Baigorri	1995 Uztaritze
1976 Urruña + Barkoxe	1996 Baiona San Andres
1977 Donibane Lohizune	1997 Urruña
1978 Jatsu + Uztaritze	1998 Itsasu
1979 Hazparne	1999 Hazparne
1980 Sara + Donibane Garazi	2000 Ezpeleta
1981 Senpere	2001 Baigorri
1982 Milafranka-Bidarrai + Ziburu	2002 Bidarte
1983 Baigorri	2003 Senpere
1984 Urruña + Ortzaize	2004 Ortzaize
1985 Ezpeleta	2006 Jatsu
1986 Kanbo	2007 Ziburu
1987 Baionako katedralean	2009 Donapaleu
1988 Irisarri	

Orai langileak ttipitzen ari dira, beharorduak beti hor, bainan segitzeko nahikaria ere beti bizi ! Baitezpada segitu behar dugun lana da hori.

Koralen lanaz kanpo, nola ez aipa hemen haurren eta gazteen mailean eginak izan diren lan ederrak :

- Lehen lehenik agertuak **Haurrak kantari**.
- Ezin berexizko hirukotea : Berterretx, Larrieu eta Erramuzpe.
- Mixel Lekuona eta Roger Idiart.
- **Iguzki lore** taldeak hedatu kantu argi eta beroak.
- Graxi eta Pantxika ama alabek egertu Katixima.
- Errobiko Salvatore liburuxka.
- Lapurdi irratiak hedatzen dauzkigun kantu eta testoak etb...
- Ahantzi ditudanek barkatu !!

Norbaitek testo edo doinu berriak egiten balitu, edo lan mota horri buruz hasi nahi balu, jakin-araz dezala helbide hauetarik batetara :Alexandre Aguerre, Lapurdi-irratia, Uztaritze edo Aita Ignace Etchehandy Beloke Ahurti/Urt. Aintzinetik eskerrak Euskal Herriaren izenean !

**Aita Ignace Etchehandy,  
Beloke.**